

**FAMILIENTZAKO LAGUNTZAK EMATEA
ARAUPETZEN DUEN ORDENANTZA**

ZIOEN AZALPENA

Udal honek udal laguntza osagarriak ematen ditu, norbanako batek edo familia batek bere eguneroko bizitzan ohiko moduan aritzea asko zailtzen duten edo ezinezko bilakatzen duten nahikoak ez diren biztanleen baliabide ekonomiko egoera jakin batzuk arintzeko xedez. Foruko Udalak ezin ditu egoera horiek ahaztu, eta horretarako eman daitezkeen laguntza ekonomikoak araupetzen dituen Ordenantza araupetzaille bat onetsi zen.

Horrekin gauzatu egiten zen, baita ere, Bilboko Gotzaindegiarekin sinatutako eta erabat gizarteari zuzendutako jomuga, Udalak «Calabria» Zahar-etxe-ospitale zaharra izeneko finka eskuratzearen ondoriozkoa, horrekin, halaber, izen hori daraman ongintzazko fundazioaren helburuak betez.

Laguntzak ematen hasi zirenetik igaro den denboraren zein udal programaren garapenaren ondorioz, eta gaur egun jasaten ari garen krisiak sortutako egoera kontuan izanda, komenigarria da biztanle batzuek bizi duten egoeraren aurreko interes publikoko, sozialeko eta gizatiarreko arrazoiak direla eta bideratutako aldi baterako diru-laguntza horiek eguneratzea. Laguntzok oinarrizko beharren arretarako ematen dira. Aipatutako guztiaren ondorioz, Ordenantza hau prestatu da.

1. artikulua.—Xedea eta helburua

Ordenantza honen xedea, behar adina baliabide ekonomikorik ez duten Foruko udalerriko biztanleei familiei zuzendutako laguntza ekonomikoak emateko prozedura, irizpideak eta eskakizunak zehaztea eta araupetzea da, oinarrizko beharrei erantzun ahal izateko. Laguntza horiek elikadura eta higiene gastuetara zuzenduta egongo dira oso-osorik.

2. artikulua.—Jasotzaileak

Udal laguntza ekonomikoaren jasotzaileak izango dira oinarrizko beharrei aurre egin ahal izateko behar adina baliabide ekonomikorik ez duten eta laguntza horiek emateko ezarritako eskakizunak betetzen dituzten eta Foruko udalerrian bizi diren pertsonak eta familiak.

3. artikulua.—Pertsona eskatzaileek bete beharrekoak

Laguntzen jasotzaileek honako betebeharrak izan eta egiaztatu beharko dituzte:

- 18 urtetik gorakoa izan edo legez emantzipatuta egotea edo, hala ez bada, emantzipazioarako legezko izapidea hasita izatea.
- Foruko udalerrian bizitzea edo bizi izana era jarraituan, eskaria eskatu baino urte bateko (1) aurrerapenez.
- Etxean, laguntzaren xede izango den beharrari aurre egin ahal izateko behar adina baliabide ekonomikorik ez egotea, 7. artikuluan xedatzen denaren arabera.
- Beste edozein Herri Administrazioetik bestelako laguntzarik ez jasotzea edo laguntza horiek jasotzeko eskubiderik ez izatea, edo prestazioa eskatzen dena aurre egin ahal izateko baliabide proplorik ez izatea.

4. artikulua.—Prozedura

Laguntza horien ematea Ordenantza honetan araupetzen den prozeduraren arabera egingo da, eta Alkatetza-Udalburutzaren ebazpen bitartez, zuzenean.

5. artikulua.—Eskariak aurkezteko era, lekua eta epea

5.1. Eskariak, 6. artikuluan zehazten den dokumentazioarekin batera, Foruko Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, bulego orduetan.

**ORDENANZA REGULADORA DE LA CONCESIÓN
DE AYUDAS ECONÓMICAS FAMILIARES**

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Este Ayuntamiento viene concediendo ayudas municipales complementarias con objeto de paliar determinadas situaciones de recursos económicos insuficientes del vecindario que dificulten gravemente o impidan el normal desenvolvimiento de un individuo o familia en su vida cotidiana. Situaciones a las que el Ayuntamiento de Forua no puede ser ajeno y para lo que dio aprobación en su día a una Ordenanza reguladora de las ayudas económicas que a tal fin pudieran concederse.

Con ello materializaba también el destino eminentemente social convenido con el Obispado de Bilbao a resultas de la adquisición por parte del Ayuntamiento de la finca Antiguo Asilo-Hospital «Calabria» dando cumplimiento a su vez a los fines de la Fundación benéfica de este nombre.

Tanto el tiempo transcurrido desde el inicio de la concesión de estas ayudas como el propio desarrollo de este programa municipal, y en el momento actual la situación causada por la crisis económica en que nos hallamos, aconsejan la actualización de estas prestaciones dinerarias de carácter temporal destinadas a paliar por razones de interés público, social y humanitario especiales situaciones de dificultad en las que se encuentren algunos/as de sus vecinos/as y que se conceden para la atención de necesidades básicas, por lo que en consideración a todo ello se elabora la presente Ordenanza.

Artículo 1.—Objeto y finalidad

El objeto de la presente Ordenanza es la determinación y regulación del procedimiento, criterios y requisitos para la concesión a vecinos/as del municipio de Forua con carencia de recursos suficientes de ayudas económicas familiares para la atención de necesidades básicas, destinadas en exclusiva para los gastos de alimentación e higiene.

Artículo 2.—Destinatarias

Serán beneficiarias de estas ayudas económicas municipales las personas y familias residentes en el municipio de Forua que carezcan de recursos económicos suficientes para atender las necesidades básicas y cumplan con los requisitos establecidos para su concesión.

Artículo 3.—Requisitos de las personas solicitantes

Las personas solicitantes de las ayudas deben reunir y acreditar los siguientes requisitos:

- Ser mayor de 18 años o estar emancipado/a legalmente o, en su defecto, haber iniciado el trámite legal de emancipación.
- Residir o haber residido en el término municipal de Forua de forma continua con una antelación mínima de un (1) año a la solicitud de ayuda.
- Insuficiencia de recursos económicos en el hogar para atender la necesidad para la que se solicita la Ayuda, conforme a lo establecido en el artículo 7.
- No percibir o tener derecho a percibir otras ayudas de cualquier Administración Pública o disponer de recursos propios que cubran la totalidad de la necesidad para la que se solicita la prestación.

Artículo 4.—Procedimiento

La concesión de estas ayudas se realizará con arreglo al procedimiento que se regula en la presente Ordenanza y de forma directa por resolución de la Alcaldía-Presidencia.

Artículo 5.—Forma, lugar y plazo de presentación de las solicitudes

5.1. Las solicitudes, acompañadas de la documentación especificada en el artículo 6, se deberán presentar en horario de oficina en el Registro General del Ayuntamiento de Forua.

6. artikuluan zehazten den dokumentazioa Foruko Udalaren esku dagoenean, horren aurkezpenaren orde, idazkaritza Nagusiak egindako diligenzia aurkeztu ahal izango da. Dokumentazioan zein dokumentazio den eta zein espedientetan dagoen zehaztu ahal izango da.

5.2. Eskariak aurkezteko epea hamabost (15) egun baliodunekoa izango da, laguntza emateko deialditik aurrera. Deialdia Alkatetzaren Bando bitartez egingo da, eta urte bakoitzeko urritik azarora bitartean egingo da.

5.3. Salbuespen gisa, espedienteak ofizios bideratu ahal izango dira, hala egitera bultzatzen duten abagune larriak, ez ohikoak edo premiazkoak ematen direnean.

6. artikulua.—Dokumentazio egiaztagarria

6.1. Eskariarekin batera, eskaria aurkezten duen pertsonari eta familia unitateko gainerako kideei dagokien ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

Horretarako, familia unitate kontzeptua, elkarbizitza independentea duten eta etxebizitza berean bizi diren pertsonen multzoa ulertzen da, ahaidetasun loturak dituzten adin nagusiek eta euren zainketa, guarda edo jasotze egoeran dauden adin gabeez osatua. Ez dira bestelako loturarik duten pertsonak kontuan hartzen, etxebizitza berean bizi badira ere.

a) Eskaria aurkezten duen pertsonaren eta familia unitatea osatzen duten gainerako pertsonen NAN-aren, pasaportearen edo N.I.E.-ren fotokopia.

b) Familia liburuaren fotokopia.

c) Osasun txartelaren fotokopia.

d) Foru Ogasunak emandako Errenta eta Ondasun ziurtagiria.

e) Estatuko Ogasunak emandako Ondasun ziurtagiria.

f) Ondasun higiezinik izanez gero, Ondasun Higiezinaren Zergaren (OHZ-IBI) azken ordainagiriaren fotokopia.

g) Familia unitatearen ondarea eta diru-sarrerak egiaztatzen dituzten ondorengo ziurtagiriak:

— Bizikidetzatza independenteen unitate ekonomikoko kide guztien nominen fotokopia.

— Familia unitateko kide guztien lan bizitza edo langile gisa alta ez izatea adierazten duen Gizarte Segurantzako Diruzaintzak emandako txostena.

— Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren Ziurtagiria, pentsiorik jasotzen duten ala ez adieraziz, eta jasoz gero, pentsio mota eta zenbatekoa zehaztuz.

— Langabezian dauden pertsonen kasuan, «Enplegu eskari Ziurtagiria». (Bertan subsidiarioaren eskatzaile den edo nolabaiteko prestaziorik kobratzen duen ala ez adieraziko da). INEM-en eskatu behar da.

— Azken 12 hilabeteetako kontuen egoerari eta bankuko tituluei buruzko banketxeen ziurtagiriak.

— Aldizkako beste prestazio batzuen kasuan, azken ordainketaren ordainagiria, hitzarmen araupetzaila edo dagokion ebazpena.

h) Familiaren erroldatze bolantea.

i) Hartzekodunen orria behar bezala beteta (Udalaren esku ez badago eta datuak indarrean jarraitzen ez badute).

j) Banaketa, dibortzio edo ezkontza deuseztasun kasuetan, dagokion epai ebazpenaren fotokopia eta doako justizia eskariaren ziurtagiria.

k) Familiaren egoera eta egoera sozio-ekonomikoa akreditatzeko beharrezkotzat har daitekeen eta espedientearekin batera joan behar den beste edozein dokumentazio.

6.2. Aurreko erroldarekin adierazitako dokumentazioaren parte bat, laguntza eskariarekin batera Udaleko Bulego Nagusian eman beharreko Eredutegia aurkeztuz ordezkatu daiteke, hori guztia, interesatutako pertsonari akatsak konpontzeko edo beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko agindeia egitearen kalterik gabe, 10 eguneko epean. Jakinarazi behar da horrela egin ezean

Cuando la documentación especificada en el artículo 6 obra en poder del Ayuntamiento de Forua, su aportación podrá ser sustituida mediante diligencia realizada por la Secretaría General, indicando la documentación de que se trata y el expediente en el que se encuentra.

5.2. El plazo para la presentación de las solicitudes será de quince (15) días hábiles desde la convocatoria para la concesión de las ayudas, que se efectuará mediante Bando de la Alcaldía que se dictará entre los meses de octubre y noviembre de cada año.

5.3. De manera excepcional, los expedientes podrán ser incoados de oficio, cuando concurren circunstancias graves, extraordinarias o urgentes que así lo aconsejen.

Artículo 6.—Documentación acreditativa

6.1. Las solicitudes irán acompañadas de la documentación siguiente, referida a la persona solicitante y al resto de miembros de la unidad familiar:

A tal efecto, el concepto de unidad familiar se define como el conjunto de personas de convivencia independiente con residencia en el mismo domicilio integrado por las personas mayores con vínculos/lazos de parentesco y los y las menores de edad sobre los que ostentan su patria potestad, tutela, guarda o acogimiento familiar. No se incluyen personas con otra vinculación, aunque residan en el mismo domicilio.

a) Fotocopia del D.N.I., pasaporte o N.I.E. de la persona solicitante y del resto de personas que componen la unidad familiar.

b) Fotocopia del Libro de Familia.

c) Fotocopia de la Tarjeta Sanitaria.

d) Certificado de Renta y Bienes expedido por Hacienda Foral.

e) Certificado de Bienes expedido por Hacienda Estatal.

f) En el caso de disponer de bienes inmuebles, fotocopia del último recibo del Impuesto de Bienes Inmuebles (I.B.I.).

g) Justificante/s que acrediten el patrimonio y los ingresos de la unidad familiar siguientes:

— Fotocopia de las nóminas de todos los miembros de la unidad económica de convivencia independiente.

— Vida Laboral de todos los miembros de la unidad familiar o informe emitido por la Tesorería de la Seguridad Social de no estar dado/a de alta como trabajador/a.

— Certificado del Instituto Nacional de la Seguridad Social de si perciben o no pensión y en caso de percibirla señalando tipo de pensión y cuantía.

— En caso de personas desempleadas «Certificado de Demanda de Empleo». (En el que conste si es demandante no subsidiario o cobra algún tipo de prestación). Se solicitará en el INEM.

— Certificados bancarios relativos al estado de cuentas y títulos bancarios de los últimos 12 meses.

— En caso de otras prestaciones periódicas, fotocopia del recibo del último pago, convenio regulador o resolución correspondiente.

h) Volante de empadronamiento Familiar.

i) Hoja de acreedores debidamente cumplimentada (salvo que ya estuviera en poder del Ayuntamiento y sus datos siguieran vigentes).

j) En caso de separación, divorcio o nulidad matrimonial, fotocopia de la correspondiente resolución judicial y Justificante de solicitud de justicia gratuita.

k) Cualquier otra documentación que se considere necesaria para la acreditación de la situación socioeconómica y familiar y que deban acompañar al expediente.

6.2. La documentación expresada en el apartado anterior podrá sustituirse en parte mediante la presentación junto con la solicitud de ayuda del Cuestionario modelo a proporcionar en la Oficina General del Ayuntamiento, todo ello sin perjuicio de que pueda requerirse a la persona interesada para que proceda a la subsanación de errores o para la aportación de la documentación necesaria en

bere eskarian atzera egin duela ulertuko dela, Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Araubide juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

7. artikulua.—*Baliabide ekonomikoen gabezia*

Udalak ematen dituen familientzako laguntza ekonomikoen xede diren beharrei osorik edo parte batean aurre egin ahal izateko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak ez daudela ulertuko da, bizikidetzaren independenteko familia unitate eskatzaileak baldintza hauek betetzen dituenean:

- Bizikidetzaren familia unitateko kide kopuruaren arabera dagoen Lanbidearteko Gutxieneko Soldata ahalako hiru baino altuagoak diren urteko diru-sarrerarik ez izatea.
- Ohiko etxebizitzaz aparte ondasun higiezinik ez izatea, horien gainean jabetza, izate, usufruktu edo bestelako eskubiderik izanik, horien ezaugarriak, balorazioa, ustiapen edo salmenta aukerak direla eta, laguntza eskatzen den beharri aurre egin ahal izateko behar adina baliabide daudela erakusten duenik.
- Adierazitako urteko gehieneko zenbatekoaren adina edo altuagoa den baliodun ondarerik ez izatea, Bizikidetzaren familia unitateko kide kopuruaren arabera.

8. artikulua.—*Laguntzen zenbatekoa*

Laguntzen zenbatekoa, 10. artikuluan adierazitako balorazio irizpideen aplikaziotik sortutakoa izango da.

Ondore horietarako, bere gehieneko kopuruan emango dira puntuazio altuena lortzen duen pertsonari/familia unitateari emango zaio, eta hurrengoel, puntuazio altuenarekin duten ehunekoari dago-kiona, eskari bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera. Laguntzaren zenbatekoa ezin izango da, inolaz ere, ondoren adierazten den gehieneko zenbatekoaren herena baino txikiagoa izan.

Edonola ere, laguntza bakoitzaren gehieneko laguntza ezin izango da hileko 100,00 euro baino gehiagokoa izan, eta dagokion ekitaldi ekonomikoan Udal aurrekontuarekin batera onartzen den Beterazpeneko Udal Araudian laguntza horietarako ezartzen den gehieneko mugara egokitu beharko da.

9. artikulua.—*Laguntzen iraupena*

9.1. Laguntzek urtebeteko iraupena izango dute, urte naturalarekin bat etorriz, eta amaitutako hilabeteetan ordaindu ahal izango dira, hamabi, gehienez ere.

9.2. Udal laguntzek borondatezko izaera dute, eta ezin izango dira aurrekari gisa argudiatu. Udalak indarririk gabe utzi ahal izango ditu edozein unetan eta, batez ere, emakida eragin zuten abaguneak desagertu direnean edo haien jomuga nabarmen betetzen ez denean.

10. artikulua.—*Balorazio irizpideak*

Laguntzak honako hauek arabera esleitu dira:

- 10.1. Bizikidetzaren unitateko kide kopurua: puntu 1 kide bakoitzeko.
- 10.2. Ezintasuna/urritasuna: puntu 1 bizikidetzaren unitateko kide bakoitzeko.
- 10.3. Per capita errenta ondorengo taularen arabera baloratuko da:
 - 6.000 euroraino: 20 puntu.
 - 6.000 eurotik 10.000 eurora: 10 puntu.
 - 10.000 eurotik 15.000 eurora: 5 puntu.
 - 15.000 eurotik 20.000 eurora: 2 puntu.
 - 20.000 eurotik gora: 0 puntu.
- 10.4. Seme-alaba ikasleak: Puntu 1 seme-alaba bakoitzaren errentatik.
- 10.5. 3 urtetik beherako seme-alabak: 2 adin horretako seme-alaba bakoitzaren errentatik.

un plazo de 10 días, apercibiéndole que en caso contrario se le tendrá por desistido en su petición, de conformidad con lo establecido en el artículo 71 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento administrativo común.

Artículo 7.—*Carencia de recursos económicos*

Se considerará que no se dispone de recursos económicos suficientes con que atender total o parcialmente a las necesidades objeto de estas ayudas económicas familiares municipales cuando la persona o la unidad familiar de convivencia independiente peticionaria reúna los siguientes requisitos:

- No disponga de unos ingresos anuales superiores a tres veces el Salario Mínimo Interprofesional, que les pudiera corresponder según el número de miembros de la unidad familiar de convivencia.
- No disponga de bienes inmuebles, distintos a la vivienda habitual, sobre los que se posea un derecho de propiedad, posesión, usufructo o cualquier otro que, por sus características, valoración, posibilidad de explotación o venta, indique la existencia de medios suficientes para atender la necesidad para la que se le solicita la ayuda.
- No disponga de un patrimonio, cuyo valor sea igual o superior a la cuantía anual máxima indicada, que les pudiera corresponder en función del número total de miembros de la unidad económica de convivencia.

Artículo 8.—*Cuantía de las Ayudas*

La cuantía de las ayudas será la que resulte de la aplicación de los criterios de valoración establecidos en el artículo 10.

A estos efectos, se concederán en su cuantía máxima a la persona/unidad familiar que obtenga la mayor puntuación y a los/as siguientes en el porcentaje del tanto por cien sobre la mayor puntuación en función de la puntuación obtenida para cada solicitud, sin que la cuantía de la ayuda pueda ser inferior a un tercio del importe máximo que se fija a continuación.

En todo caso, el importe máximo de cada ayuda no podrá superar los 100,00 euros mensuales, debiendo ajustarse este límite máximo al que se fije para estas ayudas en la Norma Municipal de Ejecución que se apruebe con cada Presupuesto municipal del ejercicio económico correspondiente.

Artículo 9.—*Duración de las Ayudas*

9.1. Las ayudas serán de duración anual, coincidiendo con el año natural, pudiéndose hacer efectivas por mensualidades vencidas con un máximo de doce.

9.2. Las ayudas municipales tienen carácter voluntario y no serán invocables como precedente, pudiendo ser revocadas en cualquier momento por el Ayuntamiento y, en especial, cuando hubieren desaparecido las circunstancias que motivaron su concesión o se incumpliere manifiestamente el destino de las mismas.

Artículo 10.—*Criterios de valoración*

Las ayudas se adjudicarán conforme a los siguientes:

- 10.1. Número de miembros de cada unidad convivencial: 1 punto por miembro.
- 10.2. Discapacidad/Invalidez: 1 punto por cada persona de la unidad convivencial.
- 10.3. La Renta per cápita se valorará en función de la siguiente tabla:
 - Hasta 6.000 euros: 20 puntos.
 - De 6.000 euros a 10.000 euros: 10 puntos.
 - De 10.000 euros a 15.000 euros: 5 puntos.
 - De 15.000 euros a 20.000 euros: 2 puntos.
 - Mas de 20.000 euros: 0 puntos.
- 10.4. Hijos e hijas estudiantes : 1 punto por hijo o hija.
- 10.5. Hijos e hijas menores de 3 años : 2 puntos por menor.

10.6. Familiaren ekonomian ez ohiko gastua eragiten duten gaixotasunak dituzten familiako kideak: puntu 1 kide bakoitzarengatik.

10.7. Familia burua alarguna, banandua, ezkongabe, pensioduna, izateagatik: Puntu 1.

10.8. Hirugarren adineko pertsonak: Puntu 1, 60 urte baino gehiago baditu, 2, 75 urte baino gehiago baditu.

10.9. Diru-sarrera likidoen %30etik gorako alokairuak dituzten etxebizitzetan bizi badira: 2 puntu.

10.10. Udalerrian bizi/errolatuta daramaten urte bakoitzeko: Puntu 1 urte bakoitzeko, 20 puntu gehienez.

10.11. Informazio batzorde iraunkorraren iritziz ez ohikoak izan daitezkeen bestelako abagune batzuk: 5 punturaino.

11. artikulua.—*Eskariak aurkezteko modua, lekua eta epea*

11.1. Eskariak, 6. artikuluan zehaztutako dokumentazioarekin batera, bulego orduetan eskatu beharko dira Foruko Udaletxeko Erregistro Orokorrean.

6. artikuluan zehazten den dokumentazioa Foruko Udalerren esku dagoenean, horren aurkezpenaren ordez, Idazkaritza Nagusiak egindako diligentsia aurkeztu ahal izango da. Dokumentazioan zein dokumentazio den eta zein espedientetan dagoen zehaztu ahal izango da.

11.2. Eskariak aurkezteko epea hamabost (15) egun ballo-dunekoa izango da, laguntza emateko deialditik aurrera. Deialdia Alkatetzaren Bando bitartez egingo da, eta urte bakoitzeko urritik azarora bitartean egingo da.

11.3. Salbuespen gisa, espedienteak ofizioz bideratu ahal izango dira, hala egitera bultzatzen duten abagune larriak, ez ohikoak edo premiazkoak ematen direnean.

12. artikulua.—*Espedienteen izapidetzea*

12.1. Gizarte Ongizate Sailak/Zinegotzigo eskuordetuak jasoko ditu eskariak, eta ondoren baloratuko ditu.

12.2. Eskaria jaso ondoren, hala denean, interesatutako pertsonari agindeia egingo zaio, akatsak konpontzeko edo beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko, 10 eguneko epean. Jakinarazi behar da horrela egin ezean bere eskarian aldera egin duela ulertuko dela, Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Araubide juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe, aurretik ebatzi ondoren. Bertan, gertatzen den abagunea, izandako gertakariak eta arau aplikagarriak adieraziko dira.

12.3. Espedientea izapidetuko duen Gizarte Ongizate Sailak/Zinegotzigo eskuordetuak, pertsona interesatuek aurkeztutako datuen egitasunari buruz egin beharreko egiaztapenak egitea agindu ahal izango du. Halaber, pertsona horiei agindua eman ahal izango zaie, argitu beharrekoak idatziz argitu ditzaten eta ebatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkez dezaten.

Eskari ororen aurrean, Udaleko Gizarte Ongizate Sailak eskakizunaren eta eskaria aurkezten duen pertsonaren eta bizikidetzako familia unitateko gainerako kideen banakako egoera sozio-ekonomikoaren azterketa egingo du, aurkeztutako dokumentuetan, egindako elkarrizketetan, etxeetara egindako bisitetan eta beharra erakusten duen gizarte egoera kontuan izateko ballagarri diren gainerako elementuetan oinarrituz.

12.4. Espedientea osatu ondoren, Zinegotzi Eskuordetuak edo/eta dagokion Arduradunak txostena emango du, eta bertan adieraziko da pertsona onuradunak eskatutako laguntza jasotzeko beharrezkoak diren ezaugarriak betetzen dituen ala ez adieraziko da.

12.5. Espedientea izapidetu eta aurkeztutako dokumentazioa eta emandako txostenak aztertu ondoren, Gizarte Ongizate Sailak, eskatutako Laguntza emateko edo ez emateko bidezketasunari buruzko proposamena eta horren zenbatekoa prestatuko ditu, eta horren berri emango zaio, Funtsen kontu-hartzailletza Zerbitzuak gastuaren fiskalizazioaren aldeko txostenaren ondoren, Alkatetza-Udalburuari, horren gainean ebatzi dezan, udaleko organo horri dagokion ordezkaritza eskumenen kalterik gabe.

10.6. Miembros familiares con enfermedades que supongan un gasto extraordinario para la economía familiar: 1 punto por miembro.

10.7. Cabeza de familia en situaciones de viudedad, separaciones, paro, soltería, pensionista : 1 punto.

10.8. Personas de la tercera edad : 1 punto si tiene mas de 60 años, 2 si tiene mas de 75 años.

10.9. Viviendas en alquileres superiores al 30% de sus ingresos líquidos: 2 puntos.

10.10. Por años de residencia/empadronamiento en el municipio: 1 punto por año con máximo de 20 puntos.

10.11. Otras circunstancias excepcionales a criterio de la Comisión informativa permanente: Hasta 5 puntos.

Artículo 11.—*Forma, lugar y plazo de presentación de las solicitudes*

11.1. Las solicitudes, acompañadas de la documentación especificada en el artículo 6, se deberán presentar en horario de oficina en el Registro General del Ayuntamiento de Forua.

Cuando la documentación especificada en el artículo 6 obrase en poder del Ayuntamiento de Forua, su aportación podrá ser sustituida mediante diligencia realizada por la Secretaría General, indicando la documentación de que se trata y el expediente en el que se encuentra.

11.2. El plazo para la presentación de las solicitudes será de quince (15) días hábiles desde la convocatoria para la concesión de las ayudas, que se efectuará mediante Bando de la Alcaldía que se dictará entre los meses de octubre y noviembre de cada año.

11.3. De manera excepcional, los expedientes podrán ser incoados de oficio, cuando concurren circunstancias graves, extraordinarias o urgentes que así lo aconsejen.

Artículo 12.—*Instrucción de los expedientes*

12.1. El Departamento/Concejalía delegada de Bienestar Social recibirá las solicitudes, procediéndose a su valoración.

12.2. Una vez recibida la solicitud se requerirá, en su caso, a la persona interesada para que proceda a la subsanación de errores o para la aportación de la documentación necesaria en un plazo de 10 días, apercibiéndole que en caso contrario se le tendrá por desistido en su petición, de conformidad con lo establecido en el artículo 71 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen jurídico de las Administraciones Públicas y procedimiento administrativo común, previa resolución en la que se declare la circunstancia que concurre, los hechos producidos y las normas aplicables.

12.3. El Departamento/Concejalía delegada de Bienestar Social que instruya el expediente podrá disponer que se efectúen las comprobaciones oportunas sobre la veracidad de los datos aportados por las personas interesadas. Igualmente, podrá requerir a éstas las aclaraciones por escrito y la documentación necesaria para poder resolver.

Toda solicitud conllevará por parte del Departamento social municipal un estudio de la demanda y de la situación socio-económica individualizada de la persona solicitante y demás miembros de la unidad familiar de convivencia a partir de los documentos presentados, entrevistas mantenidas, visitas domiciliarias y cuantos elementos sirvan para la consideración de la situación social de necesidad.

12.4. Una vez completado el expediente, se emitirá el correspondiente Informe por parte de la Sra. Concejala Delegada y/o Responsable correspondiente, en el que se acredite que la persona beneficiaria cumple o no con los requisitos para recibir la ayuda solicitada.

12.5. Instruido el expediente y examinada la documentación aportada y los informes emitidos, el Departamento de Bienestar Social elaborará la oportuna propuesta sobre la procedencia de conceder o denegar la Ayuda solicitada y su cuantía y se dará traslado del mismo, previo informe favorable de fiscalización del gasto del Servicio de Intervención de Fondos, a la Alcaldía-Presidentencia para que resuelva, sin perjuicio de las facultades de delegación que asisten a dicho órgano municipal.

Proposamenak izaera pretzeptiboz eta ez lotarazlez ebatziko dituzte Udaleko Gizarte Ongizate eta Ogasun Informazio Batzorde iraunkorrek, elkarren artean egindako bilera, ebazpena eman aurretik.

13. artikulua.—*Ebazpena eta interesatutako pertsonari jakinaraztea*

13.1. Ebazpena Udaleko Alkatetza-Udalbatzari dagokio, eta hark bi hilabeteko epean eman beharko du ebazpena, Laguntzen Deialdia kaleratzen duen Urteko Bandoaren egunetik aurrera.

Epe hori igaro ondoren, berariazko ebazpen ezak onartze ondoreak izango ditu, eskatzaileak laguntza jasotzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzen dituenean.

13.2. Dena den, laguntza emateko beharrezkoa izango da izaera ekonomikoa duten betebeharrak erantzun ahal izateko behar adina kreditu egokia egotea.

Aurrekontuaren esleipena eskatutako laguntza guztiei arreta eskaintzeko nahikoa ez balitz, udaleko organo eskudunak, beharrezkotzat hartuko balu, indarrean dagoen aurrekontua aldatzeko aukera izango du, horretarako beharrezkoa den kreditua eman ahal izateko.

13.3. Hartutako ebazpenak pertsona interesatuei jakinaraziko zaizkie, Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen Araubide juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59. artikuluan aurreikusitakoa betez.

13.4. Administrazio bideari amaiera emango dioten ebazpenen kontra, indarrean dagoen legediaren arabera administrazio edo epaibideko helegiteak aurkeztu ahal izango dira.

14. artikulua.—*Laguntzak emateko modua*

14.1. Emandako laguntzen zenbatekoa, helburua eta ordaintzeko era Ebazpenean erabakitzen dena izango da.

14.2. Eskaria eragin zuten abaguneak aldatzen direnean, baina laguntza beharrak jarraitzen duenean, prestazioaren helburua aldatu ahal izango da, Gizarte Ongizate Sailaren/Zinegotziaren edo/eta adierazitako Informazio Batzorde iraunkorren proposamenez.

14.3. Gizarte Ongizate Sailaren/Zinegotziaren txostenaren arabera pertsona onuradunaren egoerak muturreko premia eta larritasuna erakusten dituen kasuetan, Ebazpena eman ahal izango da, ondoren espedienteak bete behar diren kalterik gabe.

Ezarritako epea igarota espedienteak bete ez bada, edo premia egiaztatzen ez bada, Laguntza atzera botako da eta jasotako dirua itzultzeko eskatuko da.

15. artikulua.—*Laguntza titularrak ez den pertsonari ordaintzea*

Ordainketa, Laguntzaren eskatzaileei eta onuradunei egingo zaie beti.

Hala ere, egoera berezietan, ordainketa egin ahal izango zaie hori jasotzeko agindutako erakundeei edo pertsonari, eta pertsona onuradunak edo Gizarte Ongizate Sailaren/Zinegotziak ordainketa jasotzeko baimena eman beharko die.

16. artikulua.—*Pertsona onuradunen betebeharrak*

Laguntzak jasotzen dituzten pertsonak betebeharrak hauek dituzte:

16.1. Gizarte Ongizate Sailari jakinaraztea bere familia eta gizarte egoeran izandako aldaketak guztiak, eskaria eragin zuten abaguneetan nolabaiteko aldaketa eragin badezakete.

16.2. Jasotako diru-kopurua, emandako unean ezarritako helburuetara bideratzea.

Laguntza horien ezaugarriak direla eta, beharrezkoa izango da gastua espedientearen justifikatzea, laguntza 18. artikuluan ezarritako terminoetan aplikatu izana justifikatzen duten fakturen edo bestelako edozein dokumentu baliagarriren bitartez.

16.3. Emandako diru-kopuruak itzultzea, horiek eman ziren helburuetarako erabiltzen ez direnean.

16.4. Foruko Udalaren aurrean agertzea eta harekin elkarlanean aritzea hala eskatzen zaienean.

La propuesta/s elaborada/s se someterán y dictaminarán con carácter preceptivo y no vinculante por las Comisiones informativas permanentes de Bienestar Social y Hacienda del Ayuntamiento en reunión conjunta y previa a su resolución.

Artículo 13.—*Resolución y notificación a la persona interesada*

13.1. La resolución corresponderá a la Alcaldía-Presidencia del Ayuntamiento, que deberá producirse dentro del plazo máximo de dos meses, a contar desde la fecha del Bando anual de Convocatoria de las ayudas.

Transcurrido dicho plazo, la falta de resolución expresa tendrá efectos estimatorios cuando el/la solicitante reúna los requisitos precisos para ser beneficiario/a de la ayuda.

13.2. En todo caso, para la concesión de la ayuda será requisito la existencia de crédito adecuado y suficiente para atender las obligaciones de contenido económico.

En el supuesto de que la consignación presupuestaria resultase insuficiente para atender todas las ayudas solicitadas, el órgano municipal competente, si lo considerase necesario, podrá modificar el presupuesto vigente al objeto de dotar del crédito necesario al efecto.

13.3. Las resoluciones adoptadas serán notificadas a las personas interesadas conforme con lo previsto en el artículo 59 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento administrativo común.

13.4. Contra las resoluciones dictadas, que pondrán fin a la vía administrativa, se podrán interponer los recursos administrativos o judiciales pertinentes conforme a la legislación vigente.

Artículo 14.—*Forma de conceder la ayuda*

14.1. La cuantía, finalidad y forma de pago de las Ayudas concedidas serán las que se determine en la Resolución.

14.2. Cuando varíen las circunstancias que motivaron la solicitud, pero persista la necesidad de la ayuda, se podrá modificar la finalidad de la prestación a propuesta del Departamento/Concejalía de Bienestar Social y/o las Comisiones informativas permanentes expresadas.

14.3. En aquellos supuestos en que la situación de la persona beneficiaria presente, según informe del Departamento/Concejalía de Bienestar Social, extrema urgencia y gravedad, podrá dictarse Resolución, sin perjuicio de que deba ser completado posteriormente el expediente.

Si transcurrido el plazo establecido no se hubiera completado el expediente, o no se confirmara la urgencia, se procederá a la revocación de la Ayuda y reclamación del dinero percibido.

Artículo 15.—*Pago de la ayuda a persona distinta del/la titular*

El pago se realizará a las propias personas solicitantes y beneficiarias de las Ayudas.

No obstante, en circunstancias especiales, podrá realizarse el pago a entidades o personas designadas para su percepción, debiendo en tales casos ser autorizado el pago y requisitos por la persona beneficiaria o a propuesta del Departamento/Concejalía de Bienestar Social.

Artículo 16.—*Obligaciones de las personas beneficiarias*

Las personas receptoras de las ayudas están obligadas a:

16.1. Comunicar al Departamento de Bienestar Social todas aquellas variaciones habidas en su situación socio-familiar, que puedan modificar las circunstancias que motivaron la solicitud.

16.2. Destinar la cantidad percibida a los fines para los que la ayuda fue concedida.

Dadas las características de estas ayudas, será necesario justificar el gasto en el expediente mediante las facturas o cualquier otro documento fehaciente que justifique la aplicación de la ayuda en los términos establecidos en el artículo 18.

16.3. Reintegrar los importes concedidos cuando no se apliquen para los fines para los que se concedió.

16.4. Comparecer ante el Ayuntamiento de Forua y colaborar con el mismo cuando sean requeridas.

17. artikulua.—Ukapenerako zergatiak

3. artikuluan ezarritako eskakizunak bete arren, abagune hauetakoren bat duten eskariak ukatu ahal izango dira:

17.1. Eskatutako laguntza planteatutako arazoak bideratzeko egokia ez izatea.

17.2. Pertsona eskatzaileek adierazitako datuetako edozein zuzena ez bada edo daturik ezkutatu bada, eskatutako Laguntza ukatu egingo da, pertsona eskatzaileak laguntza jasoteko baldintzak betetzen baditu ere.

17.3. Behar adinako aurrekontu zuzkidurarik ez egotea.

18. artikulua.—Itzultzea eta konpentsazioa

18.1. Laguntza osorik edo zati batean itzuli eta dagokion atzerapeneke interesa ordaindu beharko da kasu hauetan:

— Laguntza emateko oinarri izan zen gastua burutzen dela ez denean justifikatzen.

Ondore horietarako, laguntza guztiak, Foruko udalerrian dagoen merkataritza saltokiko edo/eta Foruko bertako ekoizleen fakturak/tiketak edo/eta elikadurar eta higiene alorretako gastuetara mugatuta egingo diren oinarrizko beharrei aurre egiteko laguntzaren aplikazioa justifikatzen duen bestelako edozein dokumentu ballagarri aurkeztuz eta emanez justifikatu beharko dira.

— Laguntza jasotzeko horretarako eskatzen ziren baldintzak faltsutu edo laguntza hori ez ematea eragingo luketen datuak ezkutatu baziren.

— Jasotako laguntzaren helburua, emandako helburu bera izan ez bada.

18.2. Laguntza bakoitza behar bezala justifikatu ondoren, pertsona onuradunari, ohiko exebizitzaren ondasun higiezin zergaren kuotaren edo/eta ur, zabor eta estolderia tasen %10/15aren balio-kide izango den kopuru bakarria emango zaio, Zergaren eta Tasen titularrak pertsona onuradunekin bat datozenean.

19. artikulua.—Bateraezintasun erregimena

Ordenantza honetan aurrekusten diren laguntzak bateraezintasun administrazio honek edo beste edozeinek emandako beste edozeinekin, baldin eta batzuen eta besteen xedeak behar bera betetzen badu, eta gainerako kasuetan izaera osagarria izango dute.

20. artikulua.—Aurrekontu esleipena

Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera emandako laguntzak, ondore horretarako, urtero, Udal Aurrekontuan ezarritako aurrekontu esleipenaren kargura emango dira. Hori dela eta, finantzatzeko eta emateko, horretara bideratutako aurrekontu partidaren mende egongo dira.

XEDAPEN BALIOGABETZAILEA

Udalerriko familia behartsuei zuzendutako laguntzak araupe-tzen dituen 1993ko abenduaren 15ean onetsitako Ordenantza (38. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 1994ko otsailaren 24koa) balio-gabetuta geratzen da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenantza hau indarrean sartu arte, 2013. urtean, une honetan Udalak onetsita dituen laguntzak luzatuko dira.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, behin betiko onetsi ondoren, oso-osorik argitaratuko da «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean», eta argitaratu eta 15 egunetara sartuko da indarrean.

Foruan, 2013ko abenduaren 23an.—Alkatea, Jane Eyre Urkieta Zuzaeta

(II-8783)

Artículo 17.—Causas de denegación

Podrán ser denegadas aquellas solicitudes en las que, pese a cumplir con los requisitos establecidos en el artículo 3, pueda concurrir alguna de las siguientes circunstancias:

17.1. Que la ayuda solicitada no sea adecuada para la resolución de la problemática planteada.

17.2. La falsedad u ocultamiento de cualquiera de los datos declarados por las personas solicitantes dará lugar a la denegación de la Ayuda solicitada, aún cuando la persona solicitante reuniera los requisitos para la concesión.

17.3. La insuficiencia de dotaciones presupuestarias.

Artículo 18.—Reintegro y compensación

18.1. Procederá el reintegro total o parcial de la ayuda y del interés de demora correspondiente, cuando:

— No se justifique la realización del gasto que sirvió de base para la concesión de la ayuda.

A estos efectos, toda ayuda deberá justificarse mediante la presentación y entrega de las facturas/tickets del establecimiento comercial ubicado en el municipio de Forua y/o de productores locales de Forua o de cualquier otro documento fehaciente que justifique la aplicación de la ayuda para la atención de necesidades básicas consistentes exclusivamente en gastos de alimentación e higiene.

— La obtención de la ayuda fue falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquellas que lo hubieran impedido.

— La utilización de la ayuda para finalidad distinta de aquella para la que fue concedida.

18.2. Una vez justificada debidamente cada ayuda, se indemnizará a la persona beneficiaria con el pago de una cantidad única equivalente al 10/15% de la cuota del Impuesto de bienes inmuebles de la vivienda habitual de residencia habitual y/o de las Tasas públicas de agua, basura y alcantarillado, siempre que coincidan los titulares del Impuesto y Tasas con las personas beneficiarias.

Artículo 19.—Régimen de incompatibilidades

Las Ayudas previstas en la presente Ordenanza son incompatibles con cualquier otra concedida por ésta u otra Administración, siempre y cuando el objeto de unas y otras cubra la misma necesidad, teniendo en los demás casos, carácter complementario.

Artículo 20.—Consignación presupuestaria

Las Ayudas concedidas conforme a lo dispuesto en la presente Ordenanza, se otorgarán con cargo a la asignación presupuestaria que, a este efecto, se fije con carácter anual en el Presupuesto municipal, estando por tanto sujetas para su financiación y concesión a la partida presupuestaria asignada a tal fin.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada la Ordenanza reguladora de las ayudas a familias necesitadas del municipio aprobada el 15 de diciembre de 1993 («Boletín Oficial de Bizkaia» número 38, de 24 de febrero de 1994).

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Hasta la entrada en vigor de esta Ordenanza, quedarán prorrogadas durante el año 2013 las ayudas actualmente aprobadas por el Ayuntamiento.

DISPOSICIÓN FINAL

Las presente Ordenanza, una vez aprobada definitivamente, será objeto de publicación íntegra en el «Boletín Oficial de Bizkaia», entrando en vigor a los 15 días de dicha publicación.

En Forua, a 23 de diciembre de 2013.—La Alcaldesa, Jane Eyre Urkieta Zuzaeta

(II-8783)